

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

10/2020 Foru Agindua, urtarrilaren 21ekoa. "Artziniegako arau subsidiarioen 5. aldaketa puntualaren" ingurumen txosten estrategikoa formulatzea

Artziniegako arau subsidiarioen 5. aldaketa puntuala (Araba) izapidetzeko, ingurumen ebaluazio estrategikoko erraztuari jarraitu behar zaio, zeina Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak arautzen baitu.

Prozedura horren esparruan, 2017ko uztailaren 17an, Artziniegako Udalaren idazkia sartu zen Arabako Foru Aldundian, aipatutako aldaketa puntualaren ingurumen ebaluazio estrategikoko erraztuaren prozesua izapidetzen hasteko asmoz. Aurrekoa gorabehera, Ingurumen Organoak egiaztatu ahal izan zuen ezen Artziniegako Udalak bidalitako dokumentazioak gabezia jakin batzuk zituela Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa behar bezala gauzatzeko. Hori dela eta, dokumentazioa zuzentzeko bi idazki igorri zitzaizkien, bata erreferentziako aldaketa puntualak natura ingurunean izan zitzakeen eraginak behar bezala baloratu ahal izateko soilik, eta bestea dokumentazioan jasangarritasun energetikoari buruzko azterlan bat sartzearen premiari buruzkoa, kontuan hartuta zer betekizun jasotzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak erreferentziazko aldaketa puntualaren Ingurumen Ebaluazio Estrategikokoaren prozedura abiarazi ahal izateko dokumentazioa jaso du, 2020ko uztailaren 3an:

- Artziniegako arau subsidiarioen 5. aldaketa puntualaren hirigintza agiria.

- Ingurumen ebaluazio estrategikoko erraztuaren ingurumen agiri estrategikoa, aipatutako hirigintza jarduketari buruzkoa, jasangarritasun energetikoari buruzko azterlana barnean sartzen delarik.

Uztailaren 6an eman zion hasiera Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak eragiten zaien administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko faseari, prozedura arautuari jarraituz. Kontsulten aldia amaitutakoan, txosten hau egin du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eskatuta.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2021eko urtarrilaren 12an eman du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (17/110 espediente).

1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena:

Artziniegako Arau Subsidiarioen (AS) 5. aldaketa puntualak lau alderdi biltzen ditu, eta elkarren artean harreman zuzenik ez badute ere, komunean dutena da Artziniegako udalerriko lurzoru urbanizaezinari (LUE) maila desberdinean eragiten diotela. Hauek dira aipatutako lau alderdiak laburbilduta:

- Araua aldatzea antolamenduz kanpoko egoeretan: 2/2006 Legearen 101. artikulura egokitzea planteatzen da. Hartara, indarrean dauden ASetan dauden bi kategorien ordeztu ("Berariazko antolamendutik kanpo" eta "Berariazkoa ez den antolamendutik kanpo") Legean definitzen den sailkapen sistematika erabiliko da: "Antolamenduz kanpokoak", "Hirigintza Plangintzarekin bat ez datozenak" eta "Lehendik daudenak".

— Erabilera bateragarriak definitzea, antolamenduz kanpoko egoeren ondorioetarako: Aurreko puntuari dagokionez, LUEko erabilera bateragarriak definitu behar dira. Indarrean dauden ASek ez dutenez ezartzen zer erabilera diren bateragarriak LUEn, salbu eta LUEko landa guneetan, erabilera horiek zehaztu egin behar dira. Hartara, antolamenduz kanpo dauden erai-kinetako erabilera bateragarriak aurreikusten dira, nekazaritza eta basozaintzako lurralde plan sektorialeko (LPS) zehaztapenak aplikatuz.

— LUEko egoerak: erabilera berriak eta “Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala” kategorian sartu beharreko erregulazioa: indarrean dauden ASetako 2. kapitulua (“Lehen mailako baliabideen ekoizpen erabilera”) aldatu da, eta abeltzaintza jardueren barruan erabilera berri gisa sartu da gune zoologikoa, 81/2006 Dekretuko definizioen arabera. Gune zoologikoen erabilerak barne hartzen ditu albaitaritza klinikak, animalien egoitzak, txakurtegiak, harrera zentroak eta trebatze eskolak, zaldi haztegiak eta animaliak edukitzearekin lotutako aisialdi, irakaskuntza eta ikerketa ustiategiak.

Gainera, gune zoologikoei eta lurzoruaren erabilerarekin lotutako oinarritzko autokontsumo jardueretarako eraikinei dagozkien eraikuntzako erabilera eta jardueri esleitutako hirigintza parametroak definitzen dira.

— Santa Koloma eta Soxoguti landa gune gisa sartzeari LUEn: Arabako Landa Guneen Inbentarioaren arabera, Santa Koloma 1 eta Soxoguti (bai eta haren hiru guneak ere) landa gunearen kategorian sartzeko proposatu dira. Hartara, Soxoguti 5 etxebizitza berri eraikitzea ahalbidetzen da (indarreko ASetan jasotako 6 etxebizitzetara gehitzen zaizkie, zeinek landa gune gisa soilik jasotzen baitute AFAk inbentariatutako landa gunearen zati bat) eta beste 5 Santa Koloma 1ean.

Laburbilduz, eta sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Artziniegako ASen 5. aldaketa puntualaren helburua da lurzoru urbanizaezinean indarrean dauden AS horietako zehaztapenak egokitzea Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea eta Nekazaritza eta Basozaintzako LPSra, bai eta erabilera berriak ezartzea lurzoru urbanizaezinean (gune zoologikoak eta autokontsumoa), eta bukatzeko, Santa Koloma eta Soxoguti landa gune gisa berreskuratzea lurzoru urbanizaezinean.

1.2 Ebaluatu nahi den eremu geografikoa:

Artziniegako udalerria Arabako ipar mendebaldean dago, eta mugakide ditu Bizkaia eta Burgos eta Arabako Aiara udalerria. Udalerria osatzen dute Artziniegako hiribilduak berak eta auzoak, bai eta 1841ean gehitu zitzaizkion Aiarako herriek ere: Mendieta, Erretes Tudela, Santa Koloma eta Soxoguti. Udalerria klima atlantikoaren eremuan dago, paisaia edertasun eta ingurumen balio handiko ingurune batean, Kantauriko zona menditsu batean eta Gorobel mendilerrotik eta Peñako mendietatik oso gertu. Mendi horiek markatzen dute Gaztelako goi lautadaren eta isurialde atlantikoaren muga malkartsua, eta edertasun handiko lekuak dira, itsaslabarrak, harkaiztiak, basoak eta mendiko belardiak dituzte eta.

1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denez, hainbat aukera planteatu dira:

1. Antolamenduz kanpoko egoerak:

“0” aukera: indarrean dauden ASetan idatzita dago testua, 1976ko Lurzoruaren Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan ezarritakoari jarraiki. Aukera horrek idazkerari eustea planteatzen du. Zehazki, lehendik dauden eraikinei eta antolamenduz kanpoko eraikinei dagokienez, ASetako 67. artikuluan jasotako bi egoerak aipatzen dira: berariazko antolamendutik kanpoko eraikinak eta berariazkoa ez den antolamendutik kanpoko eraikinak.

“1” aukera: 67. eta 68. artikulua berriz idaztea planteatzen da. ASetan lehendik dauden eraikinen egoerak indarrean dagoen 2/2006 Legearen 101. artikuluan jasorikora egokitzea planteatzen da: “Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, 1. paragrafoan aipatutako etxe, eraikin eta erabilerak” (ezarritako hirigintza antolamenduarekin bat ez datozen etxe, eraikin, instalazio eta erabilerak) “kategoria hauetako batean sartuko ditu hirigintzako plangintzak:

• Antolamenduz kanpokoak: indarrean dagoen hirigintza-plangintza onartu aurretik zeuden etxe, eraikin, instalazio eta erabilerak sartuko dira kategoria honetan, baldin eta plangintzak epe jakin batean horiek desagertzea aurreikusten badu lege honetan aurreikusitako jarduketa isolatu edo integratuetakoa batean edo sistema orokorrak eta tokiko sistemak egikaritzeko jarduketetako batean sartuak egoteagatik.

• Plangintzaren kontrakoak: indarrean dagoen hirigintza-plangintzarekin bat ez datozen etxe, eraikin eta erabilerak sartuko dira kategoria honetan, hirigintzako plangintzak horiek desagertzea aurreikusten ez duenean edo horretarako eperik jartzen ez duenean.

• Antolamendu xehatua egin gabeko area edo sektoreetan lehendik zeudenak.”

Egoera hori garrantzitsua da, udalerrian dauden eraikinen egoerari eragiten baitio, eta le-gearen arabera egin daitezkeen obra eta eraikuntzei zein erabilera posiblei eragiten baitie.

2. Erabilera bateragarriak definitzea, antolamenduz kanpoko egoeren ondorioetarako:

“0” aukera: indarreko ASen egungo idazkerari eustea.

“1” aukera: 5. aldaketa puntualaren alderdi horrek lehendik eraikita dauden eraikinak barne har ditzaketen hiri lurraz ez diren eremu eraikiei egiten die berariaz erreferentzia. Ez da inola ere lurzoru urbanizaezina bere osotasunean. Nola indarrean dauden ASek ez duten ezartzen zein erabilera diren bateragarriak lurzoru urbanizaezin mota horretan, salbu eta lurzoru urbanizaezineko landa guneeetan, erabilera horiek zehaztu behar dira 68. artikuluan jasorikoa aplikatzeko. Proposamena da lurzoru urbanizaezineko landa guneeetarako erabilera bateragarriak gainerako lurzoru urbanizaezineran eramatea, kontuan izanda zer xedatzen duen indarrean dagoen nekazaritza eta basozaintzako lurralde plan sektorialak, eta betiere han zehaztutako erabilera matrizearen arabera.

3. Lurzoru urbanizaezineko egoerak: erabilera berriak eta “Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala” kategorian sartu beharreko erregulazioa.

“0” aukera: indarreko ASen egungo idazkerari eustea.

“1 aukera”: erabilera berriak ezartzea planteatzen da, guneko zoologikoa onartzen delarik 81/2006 Dekretuko definizioen arabera (albaitaritza klinikak, animalien egoitzak, txakurtegiak, zaldi haztegiak eta abar), abeltzaintza instalazioak edo autokontsumo jardueretarako eraikinak baimentzen diren zona berberetan; beraz, “2. kapitulua – Lehen mailako baliabideen ekoizpen erabilera” eta 89. artikulua aldatu beharko lirateke, erabilera hori gehituz.

4. Santa Koloma 1 eta Soxoguti guneen egoera:

“0” aukera: indarreko ASen egungo idazkerari eustea.

“1” aukera: planteatzen da Santa Koloma eta Soxoguti sartzea 6 zonan (landa gunea), lurzoru urbanizaezinean; izan ere, egiaztatu da Landa Guneen Inbentarioan Santa Koloma 1ek eta Soxogutik (haren hiru gunek) landa gunetzat jotzeko baldintzak betetzen dituztela. Horiek horrela, zona horretako eraikuntza parametroak aldatzen dira, eraikitako ehunari eutsiko zaiola bermatzeko. Landa guneei eragiten dieten aldaketei dagokienez, hauek dira 5. aldaketa puntualaren aldaketa zehatzak:

LANDA GUNEA	AS	5. ALDAKETA PUNTUALA	OHARRAK
Gordeliz	8 etxebizitza	8 etxebizitza	Ez dago aldaketarik
Venta	9 etxebizitza	9 etxebizitza	Ez dago aldaketarik
Mendieta	6 etxebizitza	6 etxebizitza	Ez dago aldaketarik
Soxoguti	6 etxebizitza	11 etxebizitza	Zabalkuntza (+5)
Santa Koloma 1	—	5 etxebizitza	Berriak (+5)

2. Kontsulta fasearen laburpena

Uztailaren 6an eman zion hasiera Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak eragiten zaien administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko faseari, prozedura arautuari jarraituz. Hona hemen kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarteen zerrenda, haietatik zeinek erantzun duen adierazita:

URA - Uraren Euskal Agentzia (eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa)	X
Eusko Jaurilaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza	X
Eusko Jaurilaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	X
Eusko Jaurilaritzaren Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Energia, Meategi eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
Gasteiz Zero Zabor	
GAIA elkarte	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	X
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Energiaren Euskal Erakundea	
Artziniegako Udala	
Aiarako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	X

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoeten kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 17/110 espedientean eta www.araba.eus webgunean):

- Eusko Jaurilaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak txosten bat eman du, non adierazten baitu, aldaketa puntualaren laburpena egin ondoren, planaren zein gorabeherak eragiten duten kultura ondarean. Hartara, Santa Kolomako (eliza eta Berganza jauregia) eta Soxogutiko (Orive Salazar Ganberaren dorretxea, Deikundearen eliza, iturria eta Santa Luzia baseliza) arkitektura eta arkeologia ondarea nabarmendu eta jaso dira. Zona horietan, prebentzio eta zuzenketa neurriak ezartzea eskatzen da, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 65. artikulua betez. Hau da, gutxienez, lehenago azterketa arkeologiko bat egin behar da, eta horren arabera Arabako Foru Aldundiak zehaztu beharko du proiektu arkeologiko bat egin behar den ala ez.

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak bere txostenean jasotzen du proposatutako aldaketan ez dagoela eragin arkeologikorik bere horretan. Edonola ere, gogorazten da ezen udalerriko arkeologia zonen mugaketaren barruan egiten diren lur mugimendu guztien txostena egin beharko duela aldez aurretik Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak (...).

• URA - Uraren Euskal Agentziak txosten bat egin du, eta, bertan, planaren laburpen bat egin ondoren, zenbait gogoeta zerrendatzen ditu jabari publiko hidraulikoari (JPH) eta hari lotutako babes zonei buruz, uholde arriskuari buruz, saneamenduari buruz eta ur baliabideen hornidurari eta eskuragarritasunari buruz. Azkenik, zenbait ohar ondorioztatzen dira:

- JPHaren zortasun zona igarotzeko libre eta oztoporik gabe utzi beharko da (5 m).
 - JPHari eragiten dioten edo haren babes zonetan (zortasuna eta polizia) dauden jarduketek Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren baimena beharko dute.
 - ASak indarrean sartu aurretik eraikitako eraikinei dagokionez, baimentzen den edozein jarduerak ezin du ibai ekosistemaren babesa murriztu, ezta zortasunaren eraginkortasuna okertu ere.
 - Eraikin eta eraikuntza berriek EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze LPSan planteatutako gutxieneko atzeraguneak errespetatu beharko dituzte.
 - Ur ibilbideren batetik hurbil dauden bizitegi garapenek, zabaltze obrek eta erabilera aldaketek justifikazio edo analisi hidrauliko bat izan beharko dute, zonan dagoen uholde arriskua aztertzeko.
 - Saneamenduari dagokionez, isurketarako baimena berrikustea eta putzuak ordeztzea eskatzen da, baldin eta etorkizunean egiten diren isurketak lehendik dauden sistema autonomekin lotzen badira Soxoguti eta Santa Koloma 1eko landa guneeetan. Era berean, gogorazten da isurtzeko baimena etorkizunean egiten diren garapenen hirigintza egikaritu aurretik eman behar dela.
 - Hornidurari dagokionez, lehendik dauden azpiegituren nahikotasunari buruzko erakunde kudeatzailearen ziurtagiri bat erantsi beharko litzaioke espedienteari.
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak, bere aldetik, planaren eta haren aukeren laburpena egin ondoren, honako gogoeta hauek zerrendatu ditu:
- Ingurumen txosten estrategikoak beharrezko eduki gisa ezarri beharko luke kontuan hartzea uholde arriskua. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira JPHaren mugak eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko plan hidrologikoaren mugak (urtarri-laren 8ko 1/2016 Errege Dekretuak onetsi zuen plan hori).
 - Aldaketa puntualarekin lurzoru urbanizaezineko eraikuntza berriak ahalbidetzen direnez, isurketa gehiago egingo da; beraz, kontuan hartu beharko da saneamenduan duen eragina, eta, gainera, nahitaezkoa izango da KKHren baimena isurketa ibilgu publikora egiten bada.
 - Ibai ertzeko ibilguak eta landaredia babesteko, arreta berezia jarri beharko da eta prebentzio neurriak hartu beharko dira.
 - Santa Koloma eta Soxogutiko lurzati eraikigarriei dagokionez, JPHaren zortasun zona libre gorde behar da, oinezkoentzako pasabide publikorako eta zaintza zerbitzuak egiteko.
 - Debekatuta dago zuzenean nahiz zeharka isurtzea ur kontinentalak edo JPHari atxikitako beste edozein elementu kutsa ditzaketen urak eta hondakin produktuak.
 - Polizia zonan edozein lan edo obra egiteko, arro erakundearen aurretiazko administrazio baimena beharko da.

• Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak hau jasotzen du bere txostenean: “Santa Koloma eta Soxoguti lurzoru urbanizaezinean landa gune gisa berreskuratzean sartutako lurzati eraikigarri berriek, Arabako Foru Aldundiaren Landa Gunearen Inbentarioaren arabera, ez dute ondare historiko-arkitektonikoaren elementurik” Bestalde, adierazten du ez dirudiela ondare historiko-arkitektonikoko elementuei eragiten dienik lurzoru urbanizaezinean sartutako erabilera berrien erregulazioak, haiek arautzen dituzten hirigintza parametroak kontuan hartuta. Hala ere, gomendio batzuk egiten dira honako hauei buruz:

— Erregulazio berri horrek udal katalogoan jasotako elementuetan eta bertan sartuta ez dauden baina Arabako Foru Aldundiaren zerrendetan sartuta dauden beste elementu batzuetan duen eragina aztertzea gomendatzen da (hainbat elementu zerrendatzen dira, hala nola iturriak, zubiak, errota, etab.).

— Idazten den antolamendua mugatzen ahaleginduko da kultura ondasunetan kutsadura bisuala edo kutsadura akustikoa eragiten duten elementuen instalazioa.

• Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak hainbat ohar egin ditu:

1. Santa Koloma eta Soxoguti 6 zonan “landa gunea lurzoru urbanizaezinean” sartzeari dagokionez, aldeko txostena egin da Nekazaritza eta Basogintzako LPSaren ondorioetarako, proposatutako aldaketak kartografia errealtatera egokitzea lortuko baitu.

2. ASak egokitzea erabilera berriak ahalbidetzeko, hala nola guneko zoologikoak edo zaldi haztegiak, abeltzaintzako instalazioen zona berberetan, eta Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren 42. artikulura jo behar da (“beraz, guneko zoologikoak eta zaldi haztegiak “onura publikoko eta gizarte intereseko eraikinak eta instalazioak” erabileratzat jo behar dira), adibidez, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren 62. artikuluan jasotako erabileren matrizea kontsultatzen denean.

3. Autokontsumorako abeltzaintza jardueri dagokienez, zenbait gomendio ematen dira autokontsumorako ustiatzearen tamainaren inguruan (hegaztiak: 30 unitate; behiak: esnetarako gaitasuna duten 3 ugaltzaile, eta haragitarako gaitasuna duten ugaltzaileak edo, hala badagokio, gizentzeko 6 txekor; zaldiak: azienda larriko 5 unitate (AzLU) edo 10 AzLU, hornitzeko abereen kasuan. Nolanahi ere, eta aplikatu beharreko araudi sektoriala aldian-aldian aldatzen denez, gomendatzen da “udal ordenamenduak xedatzea autokontsumoa ustiatzeko irizpideak unean-unean indarrean dagoen araudiari egokituko zaizkiola”.

4. “Akuiferoen kutsadurarekiko kalteberak diren eremuak” baldintzatzaile gainjarri dagokienez, “egokitzen jotzen da adieraztea abeltzaintzako ustiatzearen arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen irailaren 22ko 515/2009 Dekretuan xedatutakoak bete beharko direla halako eraikuntzetarako”.

• Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak proposamenaren laburpena egin du eta natura ondarearen gaineko eraginaren azterketa egin du. Antolamenduz kanpoko egoerei eta erabilera bateragarrien definizioari dagokienez, natura ondarean inolako inplikaziorik izatea baztertzeko da. Lurzoru urbanizaezineko egoerei dagokienez, “Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala” kategoriak bat egiten du ingurumen balioa duten hainbat elementurekin (baso autoktonoak eta habitat katalogatuak, flora-espezie mehatxatuak aipatzen diren laukiak, paisaiak eta korridore ekologikoak, etab.); beraz, elementu horietan eraginik ez izateko, honako hau eskatzen da:

— Lurzoru urbanizaezina kalifikatzeko oro har kontuan hartu behar diren zenbait irizpide planteatzen dira, eta ingurumen kartografia kontsultatzeko eta deskargatzeko web helbidea ematen da (babes bereziko kategoria gisa, EAEko Espazio Natural Garrantzitsuen Katalogo Irekia eta Europar Batasunaren Intereseko Habitata sartu beharko dira; gainjarritako baldintza gisa, flora mehatxatuaren aipuak, Korridore Ekologikoen Sarea eta EAEko Paisaia Berezi eta Bikainak sartu beharko dira).

— “Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala” kategoriaren erabileren erregulazioan, beharrezkoak diren ingurumen baldintzak sartzeko eskatzen da, hala nola:

- “Zuhaitz formazioak eta Batasunaren Intereseko Habitata edozein eraginetatik babestu beharko dira.

- Flora espezie mehatxatuak aipatzen diren laukietan lurzoruaz egiten den erabilera orok edo eraikuntza berri orok (kartografia erantsi beharko da) espezie horien presentzia baztertzeko txosten botaniko bat aurkeztu beharko du.

- “470-Peñalba” arro bisualaren barruko erabilera berri orok edo eraikuntza berri orok (kartografia erantsi beharko da) paisaiaren integrazioa txosten bat aurkeztu beharko du.

Landa gune berriei dagokienez, egiaztatzen da ezen, Santa Koloma 1-en kasuan, aurreikusitako mugaketak kanpoan uzten dituela inguruko erkamezti orbanak; ez, ordea, Soxogutiren kasuan, haietako hainbat formazio landa gunearen mugaketaren barruan geratzen baitira; beraz, “berriro azpimarratzen da landa gunearen mugaketak kanpoan utz ditzala aipatutako landare formazioak, zeinak zaindu egin behar baitira.”

• IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak adierazi duenez, “ez da egiaztatu lurzatirik dagoenik, zeinetan kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak garatu baitirenik, eta beraz, arriskutsuak izan baitaitezkeenik etorkizunean erabiltzaileentzat eta ingurumenarentzat.” Horri dagokionez, GeoEuskadi bisorearen web esteka ematen da, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioa kontsultatzeko. Era horretan, aldaketa honen eremuan eragindako lurzatien kasuan, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko 4/2015 Legean jasotzen denez, beharrezkoa izango da lurzorua kalitateari buruzko adierazpena izapidetzea, baldin eta lege horren 23. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada. Azkenik, adierazten da lurzorua kalitateari buruzko ikerketak, diseinua eta lehengoratzeko neurriak erakunde kreditatuek egin beharko dituztela, urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren arabera.

3. Eragina jaso lezaketen ingurune elementuak. Aldaketa puntualaren ondoriozko inpaktu nagusiak

Eremuaren natura balioaren aurretiazko ebaluazio batean egiaztatzen da zaila dela kuantifikatzea 5. aldaketa puntual hau gauzatzetik ondorioztatuko liratekeen ingurumen ondorioen benetako irismena. Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan bertan adierazten den bezala, “5. aldaketa puntualak lurzoru urbanizaezin osoari eragiten dio. Hala ere, aldaketak egingo diren eremu zehatzak txikiak dira hedadurari dagokionez, nahiz eta udalerriaren edozein tokitan egon daitezkeen.” Bestalde, honako hau ere adierazten da: “hainbeste dira egoera desberdinek barne hartzen dituzten kasuak, eragozpen direla dokumentazio grafikoari buruzko zehaztapen zehatz eta zehatzak ezartzeko.” Horiek horrela, “Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala” kategoria, zeinak “Gune zoologikoekin” lotutako erabilera berriak ahalbidetuko baititu.

Beraz, 5. aldaketa puntualetik eratorritako ingurumen inpaktuak askotarikoak eta deslokaltatuak izan daitezke, eta, beraz, jarraian zerrendatzen dira eragina izan lezaketen ingurune eremu edo elementu nagusiak:

• Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoa (Diputatuen Kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Erabakiak onartuta).

• Arabako Foru Aldundiak proposatutako Korridore Ekologikoen Sarea (Arabako Lurralde Historikoko Ekologia eta Paisaia loturaren Estrategia. Ingurumen Zuzendaritza. Arabako Foru Aldundia. 2005) eta udalerrian dauden fauna espezieak.

• EAEko Naturagune Garrantzitsuen Katalogo Irekian sartutako kokalekuak.

• Martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak araututako onura publikoko mendiak.

• Udalerriko baso autoktonoak: basoak, ibaiertzeko zuhaitziak eta landaredia autoktonoa.

• Europar Batasunaren Intereseko eta Lehentasunezko Habitata (*) (Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEU Zuzentaraua, habitat naturalak eta basa fauna eta flora kontserbatzei buruzkoa).

• Flora espezie mehatxatuen aipuak dituzten eremuak (1x1 km-ko laukiak) (hauexen arabera: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2011ko urtarrilaren 10eko Agindua, zeinaren bidez Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda aldatu eta testu bakarra onesten baita, eta Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2013ko ekainaren 18ko Agindua, zeinaren bidez Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda aldatzen baita).

- Udalerriko sare hidrografikoa.

• Arabako Lurralde Historikoko ibilbideak, zeinek Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen 1/2012 Foru Arauak ezarritako arauketa eta antolamendua bete behar baitituzte.


Aurrekoa gorabehera, eta ingurumen agirian egindako azterketari partez erreparatuta, jarraian adierazten dira egiaztatutako inpaktu nagusiak:

• Araudia egokitzearen inpaktu positiboa: aldaketa puntualak ahalbidetuko du udaleko hirigintza plangintza Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean jasotako zehaztapen-tara egokitzea.

• Inpaktu positiboa landa ingurunean eta lehen sektorean: hein batean, baimendutako obrak erabileren arabera argitzeagatik, parke zoologikoen ezarpena arautzeagatik, autokontsumorako instalazioak sustatzeagatik eta Santa Koloma eta Soxogutin etxebizitza berriak eraikitzea baimentzeagatik.

• Inpaktu negatiboa ingurumen balio handiko elementuetan: egokia izango da ingurumen integratzioko baldintzak eta neurriak ezartzea, segurtatzeko baimendutako erabilerek apartatu honen aurreko epigrafeetan adierazitako natura ondareko elementuak (paisaia katalogatuak, korridore ekologikoak, habitat katalogatuak, etab.) babestu behar dituztela.

Bestalde, Santa Koloma 1 edo Soxoguti inguruan 5. aldaketa puntual hau aplikatzearen ondorioz egiten den eraikuntza berriko edozein eraikitze jarduerak edo udalerriko landa guneren batean etxebizitza handitzeak eragin negatiboa izan dezake landa guneen ingurune hurbilean dauden zuhaitz formazioen kontserbazioan. Izan ere, eta adibide gisa, Santa Koloma 1 eta Soxogutiko inguru hurbiletan badira intereseko habitat batzuk, Habitat Naturalak eta Basoko Fauna eta Flora Kontserbatzeari buruzko Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauaren arabera katalogatuak, hurrengo irudi honetan ikus daitekeen bezala. Hori dela eta, hurrengo apartatuan zenbait neurri ezartzen dira inpaktuak murrizteko balio naturaleko eremuetan.



Santa Koloma 1 inguruan, intereseko habitat batzuk daude katalogatuta (6510: altitude baxuko sega belardi urriak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*); 9240: *Quercus faginea* eta *Quercus canariensis* harizti iberikoak; 9340: *Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia* basoak)

Soxoguti inguruan, intereseko habitat batzuk daude katalogatuta (4090: txilardi oromediterraneo endemikoak eta otabera; 6510: altitude baxuko sega belardi urriak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*); 8210: landaredi kasmofitikoa duten malda arrokatsu kaltzikolak; 9240: *Quercus faginea* eta *Quercus canariensis* harizti iberikoak)

- Hidrologiaren eta JPHaren gaineko inpaktu negatiboak: aldaketa puntualaren bidez, lurzoru urbanizaezineko eraikuntza berriak sustatuko lirateke, eta, beraz, saneamendu isurketa gehiago egingo lirateke, horrek urak kutsatzeko arriskua ekarriko lukeelarik, eta hornidurarako ur eskariak areagotuko lirateke, eta, gainera, planean araututako erabilera berriekin JPHari eragin dakioko. Horrek guztiak ingurumen integrazioko neurriak hartzea ekarriko du.

- Aldaketa puntualak eragindako beste inpaktu batzuk: aldaketa puntuala inplementatuta erabilera eta eraikuntza berriak baimentzen diren bitartean, era askotako inpaktuak gerta daitezke obra fasean, hala nola auzokoei eragozpenak sortzea, zarata eta bibrazioak, hondakinak sortzea, kutsadura atmosferikoa, etab.

4. Ondorioak eta ingurumen baldintzak

Sustatzaileak ingurumen agiri estrategikoan jaso dituen ingurumen integrazioko neurriez gain, zehazki 11. apartatuan (45. eta 47. orrialdeak), egokitzen jotzen da honako baldintza hauek ere ezartzea, Artziniegako arau subsidiarioen 5. aldaketa puntualaren hirigintza agirian sartzeko:

A) Lehendik dagoen eraikuntza baten antolamenduz kanpoko egoeraren edozein aldaketa, lurzoruaren erabilera berria edo eraikuntza berria, 5. aldaketa puntuala onestearen ondorioz Artziniegako Udalari eska dakiokena:

- Zuhaitzei, zuhaitz formazioei edo Europar Batasunaren Intereseko Habitat eta/edo lehentasuneko intereseko habitat gisa katalogatutako landaredi naturaleko eremuei nabarmen eragin badiezaieke, zuzenean edo zeharka, Habitat Naturalak eta Basoko Fauna eta Flora Babesteari buruzko 1992ko maiatzaren 21eko Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauaren arabera, ingurumen organoak haiek gauzatzeko baimena eman aurretik, horren berri eman beharko da.

- Katalogatutako paisaiei, korridore ekologikoei, ibilbide berdeei edo mehatxupean dauden flora espezieen aipua dituzten eremuei eragin badiezaieke, ingurumen organoari jakinarazi beharko zaio gauzatze baimena eman aurretik.

- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruei eragin badiezaieke, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko 4/2015 Legean eta lurzoruaren kalitatearen ikerketei eta lurzoruaren oneratzeko neurriak diseinatu eta betearazteari buruzko urriaren 10eko 199/2006 Dekretuan aurreikusitako izapideak bete beharko ditu.

- Uholde arriskuaren osagaia jaso beharko du, eta uraren arloan eskumena duen organoak hornidurari eta saneamenduari dagokien ezarritako ematen dituen baimenak izan beharko ditu. Halaber, jabari publiko hidraulikoa eta haren zortasun eta polizia zona behar bezala babesteko ematen diren gidalerro guztiak bete beharko ditu, indarrean dagoen araudi sektorialari jarraikiz.

B) Kultura ondarea babesteari dagokionez, ondare historiko-arkitektonikoa edo arkeologikoa izan, arlo horretan eskumena duten foro organoek xedatutakoari jarraituko zaio. Horiek horrela, udalerriko arkeologia zonen mugaketen barruan egiten diren lur mugimendu guztien txostena egin beharko du alde aurretik Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak.

C) Aldaketa puntuala garatzeko jarduketek eragin litzaketen eraispen eta eraikuntza lanak gauzatzeko aldian, ontzi estankoa, gordailu iragazgaitzak edo bestelako sistemak jarri beharko dira lubrifikatzaileak edo erregaia biltegiratzeko, eta debekatuta dago erabilitakoak isurtzea. Kudeatzaile baimendu bati emango zaizkio halakoak. Debeku hori sor daitezkeen hormigoi hondarrei, eraikuntza materialei, lurrei eta abarri zabaltzen zaie. Horiek denak baimendutako hondakindegira edo zaborte-girara bidaliko dira. Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntzako eta eraispen lanetako hondakinak. Dekretu horrek eraikuntzako eta eraispenetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Artziniegako arau subsidiarioen 5. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa formulatzea.

Bigarrena. Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legea betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumenaren txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 18a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO